

Zer da LURGARBI?

Testuliburuak prezio erdian erosi edota saltzeko aukera ematen duen egitasmoa, Institutuko Batxilergo ikasleei zuzenduta.

Baldintzak:

- Testuliburuak **egoera onean** egon behar du.
- **Prezioak errespetatu** behar dira.

Liburuen zerrenda gutun honekin batera bidaltzen dizuegu.

JARRAIBIDEAK

❖ SALTZAILEENTZAT:

1. Askatasunaren webgunean, Lurgarbi atalean, bete ezazu dagokizun galdetegia, mailaren arabera. Bertan zure datuak, ibilbidea, eta saltzen dituzun testuliburuak adierazi behar dituzu. Ikasleen @educacion.navarra.es helbideekin erregistratzea eskatzen dizuegu. Zure datuak tabloian bilduko dira. Gorde ezazu e-mailez jasoko duzun erantzuna, liburuak saltzean ezabatu ahal izateko.
2. Eroslea zurekin jarriko da kontaktuan, telefonoz edo postaz. Ados jarri zure artean, liburuen salmenta egiteko.
3. Liburuak saltzean, editatu galdetegia (e-mailez jaso zenuena) eta kendu banan-banan (denak saldu badituzu, *saldata* markatu, taulan horrela agertu dadin).

❖ EROSLEENTZAT:

1. Askatasunaren webgunean, Lurgarbi atalean, sartu zaitez dagokizun tabloian, mailaren arabera. Bertan agertuko dira saltzaileen datuak (ibilbidea, saltzen dituen liburuak eta helbide elektronikoa)
2. Jarri kontaktuan interesatzen zaizunarekin, eta ados jarri berarekin erosketa egiteko.

OHARRA: Batxilergoko 2. mailako ikasle batzuk berandu bukatuko dute, BEUS ekainaren bukaeran izanen delako. Hala ere, galdetegia bete eta salmenta hitzartu dezakezue aldez aurretik.

ANIMATU ETA PARTE HARTU!

ZUZENDARITZA TALDEA

